



**ADUNAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

## **KULTURA DINAMIZATZAILE POSTURAKO ESKAINTZA**

Adunako Udaleko kultura sailean, udalerriko industria eta populazio hazkundera, landa, kultura eta herri nortasuna arriskuan jarri gabe egin dadin bermatzera bideratutako "ERROAK ETA ETORKIZUNA" Programa tenporala inplementatzeko Kultura dinamizatzaile baten kontratazio prozesua abiatu da, hurrengo lerroetan azaltzen diren baldintzen arabera:

---

### **Ezinbesteko baldintzak**

- ADINA: 18 urte beteta.
- TITULAZIOA: Batxilergoko edo goi-milako teknikariaren titulua.
- GIDABAIMENA: B.
- HIZKUNTZA: 3.H.E.
- Lanpostuaren betekizunak betetzeko gaitasun funtzionala.

### **Baloratzekoak:**

- Antzeko postuetan lan esperientzia.
- Euskara ezagutza maila (4.HE).
- Lanpostuaren funtzioekin zuzeneko harremana duten ikastaroak.
- Goi mailako ikasketak gizarte zientzien adarrean.
- Elkarriketa.

### **Lan Baldintzak:**

- Lanaldia: %80.
- Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, beharren arabera.
- Kontratu mota: Interinitatea. "Erroak eta etorkizuna" Programak iraun bitartean.
- Hileko soldata gordina gutxi gorabehera, eurotan: 2.000

### **Eskaerak:**

Dagozkion administrazio zein lan arauak betez, eta inguruko herrietan egon zitezkeen lan-poltsak agortu ostean, LANBIDE bitartez abiatu dugun hautaketa prozesuan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu baldintzak betetzen dituzten eta lanpostuagatik interesa duten herritarrak.

Eskaerak nora bideratu: **LANBIDE TOLOSA, otsailaren 16a baino lehen.**

---

**Informazio gehigarria:** Adunako udaleko web orrian. –Prozesuko Oinarri arautzaileetan–

Adunan, 2025eko otsailaren 5ean,

**ALKATEA**

Cristina Rodriguez Menicute